



ARATUSTE JAIA

Iragarri bezala, ostiralean, hilak 12, Aratuste jaia ospatuko dugu Laudio Ikastolan. Ez da ohiko jaia izango, jakina, baina denon artean egunari irribar bat edo beste aterako diogu.

LAUDIO TXIKI

*0, 1 eta 2 urteko haurren kasuan, egun osoan zehar aratustearekin lotutako jolas librerako tailerra izango dute. Sarre-
ra eta irteeratan familiak photocall batean parte hartzeko aukera izango dute.*

3-4-5 URTE

Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasleak goizetik etorriko dira mozorrotuta, gletan egun pasa jai giroan egin dezagun musika eta jolasekin.

LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzan ostiralean goizetik mozorrotuta etortzeko aukera egongo da. Ospakizun jaia berriz, arratsaldean burutuko dugu.

Aurpegia margotu nahi izanez gero, bakoitzak bere margoak etxetik ekarri beharko ditu edo ikastolara jadanik aurpegia margotuta etorri.

ARATUSTE ASTEARTEAN, MOZORRO LIBREA

Ohi bezala, Aratuste asteartean, hilak 16, Aratustea ospatzen jarraitzeko aukera izango dugu Ikastolan eta horretarako bakoitzak etxean prestatutako mozorroa ekarriko ahal izango du.